# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARTZA ETA TURISMO SAILA

### 3204

EBAZPENA, 2006ko maiatzaren 26koa, Berrikuntza eta Energia sailburuordearena; horren bitartez, 2005eko abenduaren 14ko Aginduan (2006ko ekitaldirako energia aurrezteko, energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarriak erabiltzeko ekintzak eta proiektuak sustatzeko laguntzen Programa garatzen duena) ezarritako esparruaren barruan, laguntzak emateko deialdia publiko egiten da.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 14ko Aginduaren (EHAAren 247. zk., 2005eko abenduaren 29koa) bitartez, energia aurrezteko, energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarriak erabiltzeko ekintzak eta proiektuak sustatzeko laguntzen Programa garatzen da.

Agindu horren 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako 2006ko ekitaldiko deialdia egitea eta horretarako eman behar diren arauak ematea.

Horrenbestez, Agindu horren 7. artikuluan ezarritako eskumena erabilita, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Xedea.

1.– Ebazpen honen bitartez, energia aurrezteko, energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarriak erabiltzeko ekintzak eta proiektuak sustatzeko laguntzen Programa garatzen duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 14ko Aginduan aurreikusitako laguntzen — itzultzekoak ez diren laguntzen — 2006. ekitaldirako deialdia egiten da.

2.– Horretarako, 3.500.000 euro erabiliko dira. Betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituaren arabera.

Lehen aipaturiko Aginduaren 2.4 artikuluari jarraiki, diru-laguntza eremu bakoitzerako baliabide ekonomikoen esleipena honako hau izango da:

– Energia aurreztearen, eta elektrizitatearen eta beroaren produkzio konbinatuaren arloan: 2.300.000 euro.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 3204

RESOLUCIÓN de 26 de mayo de 2006, del Viceconsejero de Innovación y Energía, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco establecido por la Orden de 14 de diciembre de 2005, que desarrolla el Programa de ayudas para el fomento de acciones y proyectos de ahorro, eficiencia energética y utilización de energías renovables para el ejercicio 2006.

La Orden de 14 de diciembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo (BOPV n.º 247 de 29 de diciembre de 2005), desarrolla el Programa de ayudas para el fomento de acciones y proyectos de ahorro, eficiencia energética y utilización de energías renovables.

De conformidad a lo establecido en el artículo 7.º de la citada Orden procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2006, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 7.2 de la Orden de referencia,

RESUELVO:

*Artículo primero.–* Objeto.

1.– Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria para el ejercicio 2006 de las ayudas, bajo la forma de subvención no reintegrable, previstas en la Orden de 14 de diciembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo por la que se desarrolla el Programa de ayudas para el fomento de acciones y proyectos de ahorro, eficiencia energética y utilización de energías renovables.

2.– Para este fin se destinará un total de 3.500.000.euros. Todo ello de conformidad al correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

De conformidad con el artículo 2.4 de la Orden antes citada los recursos económicos asignados a cada uno de los ámbitos subvencionables será la siguiente:

– En el área del ahorro energético y la producción combinada de electricidad y calor: 2.300.000 euros.

– Energia berriztagarrien arloan: 1.200.000 euro.

Nolanahi ere, aurkeztutako eskaera guztiak balioetsi ostean, diru-laguntza eremuren batean soberakina geratuko balitz, Energia eta Meategien zuzendariaren ebazpen bitartez, baliabide ekonomiko horiek beste diru-laguntza eremuren batera alda daitezke, betiere eskatutako diru-laguntzen arabera beharrezkoa baldin bada, eta oraindik ebatzi gabe baldin badago.

Zenbateko hori aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen guztizko kopurua kontuan hartuta, eta laguntza horiek ebatzi aurretik Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatzearen ondorioz amaitu gabeko beste diru-iturririk dagoen ikusita. Horrelako egoerarik gertatuz gero, horren berri jakinarazi behar da Berrikuntza eta Energia sailburuordearen ebazpen bidez.

***Bigarren artikulua.***– Betekizunak.

1.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 14ko Aginduan (EHAAren 247. zk., 2005eko abenduaren 29koa) aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, erreferentzia-agindu horren 3. artikuluan xedaturiko betekizunak bete beharko dituzte eskatzaileek.

***Hirugarren artikulua.***– Eskaerak eta epea.

1.– Eskaera-orriaren eta formularioen eredu bat Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren edozein Lurralde Bulegotan dago eskuragarri, baita Interneteko helbide honetan ere: www.euskadi.net/industria.

2.– Eskatzaileek Energia eta Meategian Zuzendaritzara bidali beharko dute eskaera, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2005eko abenduaren 14ko Aginduaren —energia aurrezteko, energia-eragin-kortasunerako eta energia berriztagarriak erabiltzeko ekintzak eta proiektuak sustatzeko laguntzen Programa garatzen duena— 9. artikuluan eskaturiko gainerako dokumentazio osagarriarekin batera, Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Bulegoetan aurkeztuta, edo bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 38.4. artikuluan zehazturiko tokietan.

3.– Eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa.***– Deialdi-ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da indarrean.

– En el área de las energías renovables: 1.200.000 euros.

En todo caso, cuando, una vez valorados todas las solicitudes presentadas, se produzca un excedente en alguna de las áreas subvencionables, mediante Resolución del Director de Energía y Minas, se podrá proceder a trasladar dichos recursos económicos al otro ámbito subvencionable, siempre que en función de las ayudas solicitadas así lo requiera, y se encuentre aun sin resolver.

Este importe podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Industria, Comercio y Turismo y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Innovación y Energía.

***Artículo segundo.***– Requisitos.

1.– Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden de 14 de diciembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo (BOPV n.º 247 de 29 de diciembre de 2005), deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

***Artículo tercero.***– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud y de formularios serán facilitados por cualquiera de las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o podrán obtenerse en la dirección de Internet: www.euskadi.net/industria.

2.– Los solicitantes deberán dirigir la solicitud y demás documentación complementaria establecida en el artículo 9 de la Orden de 14 de diciembre de 2005, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo por la que se desarrolla el Programa de ayudas para el fomento de acciones y proyectos de ahorro, eficiencia energética y utilización de energías renovables a la Dirección de Energía y Minas, presentándola en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo, o en los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Publicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes será de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera.***– La presente resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Bigarrena.*– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 26a.

Berrikuntza eta Energia sailburuordea,
JOSE IGNACIO ZUDAIRE ARANA.

*Segunda.*– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 2006.

El Viceconsejero de Innovación y Energía,
JOSE IGNACIO ZUDAIRE ARANA.

## ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### 3205

AGINDUA, 2006ko ekainaren 6koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Bilboko udalerriko Luis Iruarrizaga aldean, babes ofizialeko 15 etxebizitza esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena.

GERTAKARIAK:

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2002ko ekainaren 14ko Aginduak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen du. Babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko 2002ko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuaren 11. artikuluan zerrendatzen dira etxebizitza horiek.

2.– Babes ofizialeko 15 etxebizitzen sustapena Bilboko Luis Iruarrizaga aldean kokatuta dago, Bilboko Udal Etxebizitzak Tokiko Erakunde Autonomoak sustatzen du eta Erakunde bera du jabetzat, eta aipatutako aginduak arautzen duen prozedura aplikatu behar zaio. Sustapen horrek 2005eko irailaren 20an eskuratu zuen behin-behineko kalifikazioa eta EB2-0724/05-LE du espediente zenbakia.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

1.– Organo honi dagokio honako zehaztasunak finkatzeko eskumena, hala xedatzen baita Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 5. artikuluan, baita babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren 3. artikuluan ere.

## DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### 3205

ORDEN de 6 de junio de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones, para la adjudicación de 15 viviendas de protección oficial en Luis Iruarrizaga, en el municipio de Bilbao.

HECHOS:

1.– Mediante Orden del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales de fecha 14 de junio de 2002, se regula el procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección oficial relacionadas en el artículo 11 del Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

2.– La promoción de 15 viviendas de protección oficial ubicada en Luis Iruarrizaga, en el municipio de Bilbao, promovida por Org. Aut. Local de Viviendas Municipales de Bilbao y propiedad de la misma, se encuentra sometida al procedimiento regulado en la citada orden, y ha recibido la correspondiente calificación provisional con fecha 20 de septiembre de 2005 bajo el número de expediente EB2-0724/05-LE.

FUNDAMENTOS DE DERECHO:

1.– Este órgano es el competente para determinar las presentes especificaciones en virtud de lo previsto en el artículo 5 del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y en el artículo 3 de la Orden de 14 de junio de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial.